


Orduak, minutuak eta segundoak

Ordua (h), minutua (min) eta segundoa (s) denbora-unitateak dira. Erreparatu, beheko taulan, haien arteko erlazioei.

Unitate txikiago batean adierazteko, egin biderketa




Unitate handiago batean adierazteko, egin zatiketa



Ikusi nola ebatzi ditugun adibide hauek.


Zenbat minutu dira 4 ordu eta 11 minutu?



$$4 \text{ h} = 4 \times 60 = 240 \text{ min}$$

$$4 \text{ h eta } 11 \text{ min} = 240 \text{ min} + 11 \text{ min} = 251 \text{ min}$$

Zenbat ordu dira 18.000 segundo?



$$18.000 : 3.600 = 5$$

$$18.000 \text{ s} = 5 \text{ h}$$

1- Adierazi ondorengo denborak eskatzen zaizun unitatean. Horretarako erabili etxean duzun orri bat eragiketak egin ahal izateko.

- 9 h = _____ min
- 3 h = _____ s
- 7h eta 5 min = _____ min
- 4 min eta 17 s = _____ s
- 2h, 7 min eta 9 s = _____ s
- 360 s = _____ min
- 780 min = _____ h
- 5040 s = _____ min
- 7200 min = _____ h
- 28800 s = _____ h